

KONPETENTZIEI EKARPENAK

1. Komunikazio linguistikorako kompetentzia

Ulertu eta kanporatu, idatzizko edo ahozko komunikazio geometrikoetatik, behar den informazioa arazo bat ebazteko. Erabili diren hitzen egokitzapena kritikatu. Adierazi eta defendatu norbere ideaiak, erabilitako arrazonamenduak eta lortutako emaitzak, modu koherente eta zehatzean.

2. Matematikarako kompetentzia

Koordenatu sistema erabili eta aintzat hartu, bere baliogarritasuna objektuak kokatzeko. Zenbakizko informazioa biltzeko eta antolatzeke taulen balioaz ohartu.

3. Zientzia, teknologia eta osasun kulturarako kompetentzia

Erreferentzi sistemak, mundu fisikoan eta behar den zehaztasunez posizioak definitzeko duten garrantziaz ohartuz. Sistema kartesiarren garrantziaz jabetu.

4. Kompetentzi digitala

Ikertzeko, sakontzeko eta kalkuluak errazteko kalkulagailua eta aplikazio informatikoak – kalkulu orria – erabili. Emaitza automatikoen koherentzia mentalki estimatu.

4. Gizarterako eta herritartasunerako konetentzia

Komunikazioan, informazio grafikoa beharrezko zatia bezala kontsideratu, bai igorle, bai hartzaile moduan. Elkartu ikur positibo eta negatiboak eskuin ezker, goi eta behearekin. Deskribatu nahi den egoeraren arabera neurri unitateak erabili.

6. Kompetentzia kulturala eta artistikoa

Sistema kartesiarren jatorri historikoa ezagutu, eta zibilizazioaren garapenerako beharra jakin. Erreferentzi sistemen erabilera idetifikatu: posizioa eszenatokian, kamara baten aurre, GPSak, denbora lerroak, etb.

7. Ikasten ikasi

Zenbait erreferentzi sistemaren gainean ikertu (korreo helbideak, koordenatu geografikoak, puntu kilometrikoak, GPSak, etb.) eta idetifikatu bere erabilera egoera desberdinetan. Aurkitu erlazionatutako informazioa. Aintzat hartu ikasitakoa, beste ezagerak ikasteko bidea bezala.

8. Norberaren autonomia eta ekimenerako kompetentzia

Problemen ebazpenen emaitzen koherentzia kritikatu. Ebazpenen bilakaeran iraunkortasuna. Arazoiei aurre egiteko prozedura propioak sortu, eta egoeraren arabera prozedura bat edo beste aplikatu, bere eraginkortasunari begira. _Ezagutu irteerik gabeko egoerak, eta problemaren planteamenduak aldatu beste ikuspegitik aztertzeko.